

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Gabriel Urruzola Aristimuño*

*Lasarte-Oria,  
Gipuzkoa  
(1933)*

Aurkibidea



## Biografia



Lasarteko Oztaran bailarako Zatarain baserrian jaio zen. Zazpi senide ziren eta bera hirugarrena. Hamabost urte zitueneko aroztegi batean lanean hasi zen aitari laguntzen. Idiekin garraiatzen omen zuten egurra Plazaolako trenaren geltokiraino. Tren makala zela du gogoan eta, noizbait, haren tximiniak eragindako sutarik itzali beharrean tokatu zirela ere bai. Hala ere, urte gehienak (hogeita hamalau, hain zuzen ere) Michelin fabrikan pasatu zituen. Etxean bera gelditu zen gurasoekin eta etxeko lanetan ere zuzen aritu behar izan du beti.

## Zintak

### LAS-004

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-01-11
- **Iraupena:** 83 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

## Pasarteak

### 1. Baserrietako idi pareak

- **Erref:** LAS-004/004
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:04:24. **Bukatu:** 00:06:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

### Laburpena:

Baserria lau teilatutakoa zen, berritu aurretik. Zortzi behi eta idi pareak izaten zituzten. Inguruko baserriak guztietan izaten zen idi pareak. Menditik egurra ekartzeko erabiltzen zituzten.

## 2. Lurra nola lantzen zen idiekin

- **Erref:** LAS-004/007
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:11:25. **Bukatu:** 00:13:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

### Laburpena:

Lurra idiekin eta goldearekin lantzen zuten. Lehenengo txarrantxa edo karramarroa pasatzen zen, azala harrotzeko; gero simaurrak atera eta zabaltzen zen; goldea pasatu eta azkenik, harriarekin pasatzen zen.

## 3. Soldadutzarako bidaia

- **Erref:** LAS-004/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:20:09. **Bukatu:** 00:22:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

### Laburpena:

Soldadutzan zela, treneko maletategian lo egin zuen Madriletik Algecirasera bidaian. Ilea moztu zietenean, elkar ezagutu ezinda geratu ziren.

## 4. Alferezen laguntzaile eta sukaldari soldadutzan

- **Erref:** LAS-004/011
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:22:04. **Bukatu:** 00:26:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

### Laburpena:

Gazteleraz ez zekiten ezer soldadutzara joan zirenean. Arropak neurria ekartzeko egun osoa eman zuten josten. Oheak egin eta zapatak garbitzen aritzen zen alferzei. Oso ondo egon zela dio. Ceutan sukaldari laguntzaile lanetan jarri zuten.

## 5. Izozte handia eta lehenengo lanak

- **Erref:** LAS-004/012
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:26:25. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

**Laburpena:**

1956an izozte handia egin omen zuen, pinuak ihartzera. Zerrategian lanean aritu zen soldadutzatik bueltan. Michelinetik deitu zioten gero.

**6. Basoko egurra trenera**

- **Erref:** LAS-004/013
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:34:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

**Laburpena:**

Eskola handirik ez zuen izan. Aitarekin zortzi urte ingururekin hasi zen lanean. Basotik egurra ekartzen aritzen zen aitari laguntzen, hiru idi parerekin. Egurra treneko bagoietara kargatzen zuten eta Andoaingo geltokian kamioiak hartzen zuen karga. Trenaren joan-etorriak aipatzen ditu.

**7. Mendia sutan trenaren txinpartengatik**

- **Erref:** LAS-004/014
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:34:47. **Bukatu:** 00:36:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

**Laburpena:**

Trenaren txinpartengatik, mendiak su hartzen zuen sarritan eta Gabrielekin familiarekin sua itzaltzera joan behar izaten zuen.

**8. Bapozko trenaren ibilbidea**

- **Erref:** LAS-004/015
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:36:10. **Bukatu:** 00:40:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

**Laburpena:**

Ikatzarekin eta urarekin ibiltzen zen trena garai hartan. Jende asko ibiltzen zen Iruñera joan etorrian. Donostiatik Iruñerako ibilbidea egiten zuen trenak, lau bat orduan.

**9. Harrikatza eta egur-ikatz**

- **Erref:** LAS-004/016
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:40:13. **Bukatu:** 00:41:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

**Laburpena:**

Trenak harrikatza erabiltzen zuen, ez egur-ikatza. Desberdintasuna azaltzen du.

**10. Idi-demetako lanak eta harria**

- **Erref:** LAS-004/019
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:47:08. **Bukatu:** 00:48:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

Idi-dematan atzetik zein aurretik egin behar izaten zuen norberak tira. Pisu desberdineko harriak erabiltzen ziren apustueta, mila eta bostehun kilo ingurukoak.

**11. Auzolanean bidea konpontzen**

- **Erref:** LAS-004/021
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:52:22. **Bukatu:** 00:54:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena:**

Urnietarainoko bidea auzolanean konpontzen zuten, urtean bizpahiru aldiz. Andoingo harrobitik harria ekartzen zuten eta idiekin bidean gora igotzen zuten.

**12. Lasarteko dantzaldiak**

- **Erref:** LAS-004/023
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:56:30. **Bukatu:** 01:00:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena:**

Lasarten San Pedro festak izaten ziren. "Jainkua" esaten zioten bat ibiltzen zen musikari. Hirubiden igandero izaten zen dantzaldia eta bikote asko sortzen ziren, baita borrokaldi ugari ere. Etxerakoan, nahi ez zuenarekin joatera behartzen zuten neska batzuetan.

### 13. Uztarriaren zatiak eta nola jarri

- **Erref:** LAS-004/025
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:01:18. **Bukatu:** 01:04:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Euskara » Lexikoa

#### **Laburpena:**

Uztarriaren zatiak izendatzen ditu eta nola jartzen zen azaltzen du.

### 14. Idiak ongi ferratu beharra

- **Erref:** LAS-004/026
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:04:04. **Bukatu:** 01:05:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

#### **Laburpena:**

Idiak ferratu egin behar izaten ziren; bestela, errenka ibiltzen ziren. Gaizki ferratuz gero, "odol-jaitsia" sortzen zitzaion idiari oinean.

### 15. Idien eta behien gaixotasunak

- **Erref:** LAS-004/027
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:05:17. **Bukatu:** 01:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

#### **Laburpena:**

Nafarmina izaten zen idien gaixotasun ohikoena. Frantses-minarekin behiak eta idiak hil zitzaizkiola kontatzen du.

### 16. Esnea nola banatzen zen

- **Erref:** LAS-004/028
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:06:38. **Bukatu:** 01:09:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

#### **Laburpena:**

Herrira esnea banatzen zuen. Bere amak Donostiara eramaten zuen esnea garai batean, autobusa hartuta, etxez etxe banatzeko. Asto gainean jaisten zen ama herriraino, farola eskuan hartuta. Marmitak zestoetan sartu eta kobratzaileak eta gidariak jasotzen zituzten autobusaren gainera.

## 17. Esnea etxez etxe banatzea galarazi zutenekoa

- **Erref:** LAS-004/029
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:09:21. **Bukatu:** 01:10:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Iritziak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

### Laburpena:

Inspektoreak ibiltzen ziren esne-banatzailleak kontrolatzen. Gurelesa etorritakoan, galarazi egin zuten etxez etxe saltzea. Baserriarentzat ez dagoela etorkizunik uste du.

## 18. Sagardoa egiteko prozesua

- **Erref:** LAS-004/032
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 01:16:43. **Bukatu:** 01:21:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserrria » Baserriko lanak » Sagardogintza

### Laburpena:

Sagardoa nola egiten zen azaltzen du. Dolarearen piezen izenak esaten ditu. Patsari erabat lehortu arte arte ateratzen zitzaion zukua; ondoren, abereek jaten zuten patsa belarrarekin batean. Sagardotegian astebete pasatzen zuenik izaten omen zen garai batean.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
2024-04-22

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com